

**Bilera-akta**  
**HABEko Zuzendaritza Batzordea**  
Legealdiko azken bilera

**Eguna:** 2012-12-11, asteartea    **Hasiera-ordua:** 16:05    **Bukaera-ordua:** 18:05

### **Bertaratuak**

Lurdes Auzmendi Ayerbe and., Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Iñaki Uribe Burgoa jn., HABEko zuzendari nagusia

Encar Echazarra Huguet and., HAEE-IVAPeko zuzendaria

Esther Isasa Gaskue and., HABEko Didaktika Zerbitzuko ordezkaria

Maite Euba Areitioaurtena and., Araba eta Bizkaiko udal-euskaltegietako irakasleen ordezkaria

Arantxa Ezeiza Trojaola and., Gipuzkoako udal-euskaltegietako irakasleen ordezkaria

Bestalde, Getxoko Udaleko zinegotzi Koldo Iturbe Mendilibar jn. ere bileran izan da -botoa emateko eskubiderik gabe- EUDEL ordezkatzuz, erakunde horrekin 2011ko ekainean izandako bileran Kultura sailburuorde Lurdes Auzmendi and.ak eskainitako ordezkaritza betez.

### **Bertaratu ezina adierazi dutenak**

Blanca Urgell Lázaro and., Kultura sailburua

Ivan Igartua Ugarte jn., HPSko Koordinaziorako zuzendaria

Miren Dobarán Urrutia and., Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia

Zigor Etxeburua Urbizu jn., Gipuzkoako FAko Euskararen Normalizaziorako zuzendari nagusia

Andres Iñigo Ariztegi jn., Euskaltzaindiko ordezkaria

Iciar Lamarain Cenitagoya and., Abako Foru Aldundiko ordezkaria

### **Aztergaiak**

1. 2012-04-19ko bilera-akta onartzea.
2. Kide-aldaketak Zuzendaritza Batzorde eta Batzorde Akademikoan
3. 2012-13 ikasturterako matrikulazio datuak
4. 2012ko aurrekontu-gastuen egoera
5. HABEko Plan Estrategikoaren Jarraipen Batzordea eratzearen berri ematea
6. Zornotzako barnetegiko eraikinean egin beharreko lanen aurrekontuak
7. Norberak leharkeena

## Esan-eginak eta erabakiak

### 1. 2012-04-19ko bilera-akta onartzea

Euskaltzaindiko ordezkari Andres Iñigo Ariztegi jaunak egindako zuzenketa sartu ondoren, onartuta gelditu da.

### 2. Kide-aldaketak Zuzendaritza Batzorde eta Batzorde Akademikoan

HPSko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendari P. Martinez Marigortak kargua utzi ondoren, Nerea Alustiza Alonso andreari zegokion haren hutsunea betetzea, betiere Zuzendaritza Batzorde honen onespenez. Halere, proposamena egin behar zuen organoari ez zaio egoki iruditu ordezkapen horretarako prozedura abian jartzea, gobernu-aldaketa tarteko ez zelako eraginkorra izango.

Bestalde, aldaketa bat egon da Batzorde Akademikoan: Araba eta Bizkaiko udal-euskaltegien ordezkari Josune Barrenak baja eman du eta bere ordezkari Joseba Urriz Barakaldoko udal euskaltegiko idazkari akademikoa proposatu eta onartu da. Eta Araba eta Bizkaiko udal-euskaltegiak Azterketa Batzordean zuten ordezkari J. Albizbeazkoetxea jn.aren ordezkari, Getxoko udal euskaltegiko zuzendari Kepa Dieguez arituko da. (EUDELEk bidalitako agiria eransten da.)

### 3. 2012-13 ikasturteko matrikulazio-datuak

Euskaltegiak matrikulazio-jaitsiera handia gertatuko zela usten bazuten ere, ez da horrenbestekoa izan (ikusitako datuak). Nabarmenezkoa da aurtengo ikasturte-hasieran gertatu den matrikula-jaitsiera bazetorrela 2009-10 ikasturtearekin. Bestalde, taldekako jarduerak ez dira ikasleentzako proportzioan jaitsi; hori bai, taldeko ratioak minimoetan betetzeko osatu dira taldeak.

Eskari gehien duten klase-moduluak bi muturrekoak izan dira; alegia, batetik ikastaro trinkoak, eta bestetik astean ordu-kopuru gutxi dutenak (astean bizpahiru egun, 2-3 ordukoak egunean). Honen harira, kezka mahairatu da ikastaro laburrak emanda, ez ote den askotxo luzatzen ikasprozesua, eta ikasleek horretaz jakitun izan behar dutela.

Gipuzkoa aldean izan dira daturik onenak; Bilbo aldean, aldiz, okerrenak. Horren azalpena izan liteke ikasleentzako diru-laguntzak kentzea, hartutako zenbait erabaki politikoren eragina, egoera soziolinguistikoaren efektu biderkatzailea (zonalde euskaldunenetan, matrikulazio hobeak), lan-munduaren eragina... Beherakada horri aurre egiteko, garrantzitsutzat jotzen da ikasleentzako diru-laguntzak berreskuratzea.

Hurrengo gobernuari jakinaraziko zaio zein den euskalduntze-alfabetatzeari buruzko egoera, dagozkion neurriak har ditzan. Datorren akreditazio-deialdiaren ebazpena ere arduradun politiko berrien esku geratuko da.

Aurreikusi baino ikasle gutxiago matrikulatu denez gero, diru-soberakin bat geratuko da ekitaldi honetan, eta zuzendaritza berriak erabaki beharko du zer egin horrekin.

Bestalde, aipatu da euskaltegiek ere egokitu beharko dutela HABEko Plan Estrategikoak adierazten zuen etorkizun hurbileko egoerara: ikasle-jaitsiera ohiko ikaste-sisteman...

#### **4. 2012ko aurrekontu-gastuen egoera**

Diru-kontuen balantzea ondo geldituko da, diru-soberakin eta guzti.

Esan behar da aurtengo diru-sarretan IVAPetik hasieran pentsatutakoa baino milioi bat euro gutxiago jaso dela (8 milioitik 7 milioira jaitsi zen bere ekarpena); diru-galera horrek erdizka eragin die euskaltegi publiko eta pribatuei, hainbanaketa eginez.

Orain arte hileroko atalburu eta kargudunei banatzen zitzairen informazio ekonomikoa banatzeari utzi zitzaion, Jaurlaritzak diru-erretentzio bat agindu zuelako sail guztiei. Horiek horrela, zuhurtziaz, erabaki zen gai hori argitu arte informaziorik ez zabaltzea.

#### **5. HABEko Plan Estrategikoaren Jarraipen Batzordea eratzearen berri ematea**

Plan Estrategikoan jasotzen zen bezala, eratu da batzorde hori eta egin du aurreneko bilera.

Aipatu da batzorde hori era askotako kidez osatu dela eta bertan aztertu behar diren gaiak ikusita, hobe litzatekeela hainbat aditu gehitzea kidetzara. Zuzendariaren irizpidea izan da langileen parte-hartzea ahalik eta zabalena izatea; bestalde, segun eta zer gai aztertzen duten, dagozkion adituari kontsultatuko litzaiokeela adierazi da.

Zuzendariak gehitu du, halaber, Plan Estrategikoaren proposamenei jarraiki Komunikazio Batzordea ere eratuta dagoela jada.

Espero izatekoa da datorren gobernuak kontuan hartzea Plan Estrategikoan bildutako analisi eta proposamenak. Euskaltegiko eta HABEko ordezkarien aldetik ere interes handia dagoela adierazi dute, plana zertan gauzatzen den jakiteko.

Euskara XXI. planean ere jaso dira euskaltegiek egindako ekarpenak Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP).

#### **6. Zornotzako barnetegian egin beharreko lanen aurrekontuak**

Barnetegia berritzeko egin behar diren lanak HABE eta Zornotzako barnetegia kudeatzen duen Aurten Bai fundazioaren artean egitea zen hasierako asmoa,

baina fundazioak horri ekiteko behar adina baliabide ekonomikorik ez duela-eta, HABEren esku geratu da lan horiek burutzea.

HABEk 2003an izango dituen diru-baliabideak aurreikusita, hasiera batean 50.000 euroko obra esleituko da, nahitaezko konponketak egiteko. Ekitaldiak aurrera egin ahala ikusiko da lan gehiagorik egin behar den eta horiek zenbatekoak izango diren. Arkitektoaren iritziz, beste 30.000 euroko aurrekontuarekin eraikin osoa erabat konponduta utzi daiteke.

Kontu hau lotuta utziko da Jaurlaritzako Ondarearen Atalarekin. Bestalde, 2013ko aurrekontuetan diru-partida bat esleituko zaio atal horri.

## **7. Norberak lekarkeena**

Europar Batasuneko diru-laguntzen gaineko galderari erantzunez, deia datorren urtean egingo da 2014-2020 aldirako. Dagoeneko harremanetan daude EAE, Nafarroa eta Langune aurreklusterra (hizkuntz industriren elkartea). Kontua da egitasmoa aurkeztu eta kudeatu ahal izateko, bost herrialdek batera eskatu behar dutela. Materialgintza eta hizkuntzarekin lotutako beste proiektu batzuk (itzultzaile automatikoa...) garestiak direnez, komeni da bide hori jorratzea.

Egindako beste galdera bati erantzunez, adierazi da A1, A2 mailako esperientzia piloturik ez dela egin udan, aurreikusita bazegoen ere.

Curriculumaren inguruko galderarekin lotuta, esan da HEOKarekin lotutako agindu biak batean biltzeko asmoa dagoela, baina, horretaz gain, A1 eta A2 mailak gehituz, hala baitzaien eskatutako txosten juridikoak. Baina, gaur-gaurkoz, A1 eta A2 maila dagokien curriculum-garapena egiteke dagoenez, ezin izan da lan hori burutu.

A1eko ikasmateriala (Elhuyarrek prestaturikoa HABEren diru-laguntzaz) 2012ko abenduaren 20rako eskura izatea espero da. Bestalde, AISA jadanik argitaratuta dago eta Ikasten plataforman dago eskuragarri. Komeniko litzateke horren berri prentsa-ohar baten bidez zabaltzea.

Euskaltegietako irakasleen udal-ordezkariek adierazi dute zenbait batzordetan ez egoteak –Bitarikoan, esaterako– zenbait informazio eskuratzea eta behar bezala eragitea galarazten diela. Auzmendi sailburuak adierazi du Bitariko Batzordea euskaltegi pribatuetako arduradunekin egiten dela aurrekontuetako baliabideei buruzko informazioa emateko, eta udal-euskaltegietako titularrekin ere beste horrenbeste egiten dela. Eta udal-euskaltegietako langileek –irakasleek, alegia- aurrekontu eta diru-banaketari buruzko informaziorik nahi badute, beren titularrengana jo beharko dutela esanez amaitu du sailburuordeak.

Bukatzeko, HABEri lan emankor eta luzea opatuz, agur esan dute Auzmendi sailburuordeak, IVAPEko Enkar Echazarra zuzendariak eta Iñaki Uribe HABEko zuzendariak.

Horrenbestez, amaiera eman zaio legealdi honetako azken bilerari.